

# HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

## UDAKO KONTZERTUA

2017ko uztailaren 8an - 18:30 - Oiartzungo Done Eztebe plazan

### SALAMANCAKO ALDUNDIAREN INSTITUTO DE LAS IDENTIDADES-eko IKASLE TALDEA



Talde hau hogeit bat pertsonak osatzen dute. Salamanca probintziako herri ezberdinetakoak izanda zaletasun batek batzen ditu, *Instituto de las Identidades*-eko ikasleak dira. Talde honetako kideak Manuel Pérez Becerro maisuak zuzentzen ditu.

Salamancako Aldundiak probintziakoa bertakoa den kultura bultzatzeko nahia aspalditik azaldu du eta horren ondorioa da *Instituto de las Identidades*. Bere abiapuntu moduan jar daiteke 1907 urtean Aldundiak argitaratu zuen *Folk-lore o Cancionero Salmantino*, Dámaso Ledesma maisuaren lana.

Gaur egun *Instituto de las Identidades* deitzen denaren hasiera 1974an koka daiteke Danbolintero Eskola (*Escuela de Tamborileros*) sortzearekin. Pilar Magadán salamancarr folklorista garrantzitsua izan zen bertako zuzendaria.

Urte gutxi beranduago, 1980an, bigarren urrats garrantzitsua eman zen eskolaren kompetentziak ugaritzearekin. Horrekin batera Salamancarr Folklorearen Eskola (*Escuela de Folklore Salmantino*) izendapena eman zitzaion.

Bi urte geroago hirugarren aro berri bat abiatu zen Ángel Carril zuzendari zela. Eskolak irakasgai eta jarduera

berriak barneratu zituen eta horretatik izendapen berri baten beharra ikusi zen: Herriko Kulturaren Zentroa (*Centro de Cultura Tradicional*). Zuzendaria 2002an ezustean hiltzeak erakunde *Centro de Cultura Tradicional* "Ángel Carril" izatera pasatzea ekarri zuen.

Ibilbidean aurrera, kultura eta gizarte mailako behar eta sentikortasun berriek proiektua berregokitzea eskatzen zuten. Hori dela eta, Korporazio Probintzialaren 2009ko martxoaren 27ko Plenoak aho batez *Instituto de las Identidades* sortzea adostu zuen. Salamancako probintziaren nortasuna azaltzen duten ezaugarriak bere aberastasun zabalean (etnografia, historia, artea, geografia eta paisaia, etabar) berreskuratuz, jaso, ikertu eta hedatzeko asmoarekin

sortu zen; bai ikuspuntu historikotik, baita egunekotik; bazterketa edota murrizketa geografiko-administratibo edo kulturalik gabe.

Oiartzunen emateko prestatu duten ekitaldian Salamancako abestiak, dantzak, eta gaita (Euskal Herriko txistuaren antzekoa) eta danbolinaren musika azalduko dira.

Ikasleek danbolinaren soinua dantzatzen dute; biko, hiruko edo bosteko erritmoak. Horretaz gain, taldeko donbolinteroek doinu ezberdinak jotzen dituzte unisonoan, pasakaleak, jotak, alboradak, charradak, etabar. Erritmo hauek gaita eta danbolinarekin jotzeaz gain, batzuetan pandero laukiarekin (Peñaparda herrikoa), pandereta, kaskaineta, zartagin eta bestelakoekin laguntzen dira.

ETA  
GOIZEAN

### SALAMANCAKO DANTZEN TAILERRA

*Lekua:* KONTZEJUPEA  
Done Eztebe plaza  
20180 Oiartzun

*Eguna:* 2017-07-08

*Ordua:* 11:30

*Instituto de las Identidades*-eko ikasleek Salamancako dantzei buruzko tailerra emango dute nahi dutenentzat.

Salamancako probintzian gorde diren erritmo eta koreografiak ezagutzeko aukera paregabea izango da..

# IÑAKI ZABALETA

## Ibar ixil batean

**Iñaki Zabaletari txikitatik** dator kio kantatzeko grina. Oiartzungo parroko monagilo zegoenean, bertako koroaren meza kantatuak oso gustukoak zituen eta liluratuta gelditzen zen haiek entzuten. Gerorxeago Don Bosco ikastetxeko koroan tiple bezela kantatu zuen, koroarekin leku askotara bidaiatuz; hala nola, Madril, Santiago, Burdeos, Salamanca eta Euskal Herriko zenbait lekutara ere.

Gerorxeago, eta hamazortzi urterekin, gitarraren laguntzaz hasi zen kantari herriz herri.

Madrilera joan zen soldaduskara (garai hartako beharrak) eta bertan grabatu zuen bere lehen diskoa: "Euskal herriko kantu zaharrak".

Madrilen bertan kantaldi batzuk eman ondoren Euskal Herrira itzuli eta bere gitarraren laguntzaz kantari jarraitu zuen.

Urte bat beranduxeago *Oskarbi* taldean egin zituen hurrengo bost sei bat urte. Beraiekin grabatutako lanak dira "olentzero", "hitz urri batzuk" eta "euskara eta txakoliña". Tarte honetan kantaldi asko eman zituen euskal lurraldean eta azpimarratzekoa da Madrilgo Ateneoan egindako kontzertua.

Sei urte horien ondoren, berriro ekin zion bakarrik kantatzeari, eta "nafarroatik zehar.." diskoa grabatu zuen, Riezuren kanta bilkuran oinarritutako lana.

"Hemeretzi" izenekoia izan zen bere hurrengo lana. Bertan hemeretzigarren mendeko poesia musikatatu zuen, batez ere Elissamburu saratar olerkariaren lanak, gehienak Sarako lore jokoan sarituak.



Plazaratutako ondorengo lana "Amodioa zer dan" izan zen, hamaiseigarren mendeko eta orain arteko amodiozko olerki eta kantaz osatutakoa.

**Oraingo "Ibar ixil batean"** Iñaki Zabaletak argitaratutako bosgarren lana da. Bertan, bere aurreko "Amodioa zer dan" lanean jorratutako 11 doari jarraitzen dio, baina lan honetan, abestien ñabarduren aberastasuna handiagoa izateaz gain, gaien aniztasuna ere aurreko lanarena baino handiagoa da. Grabazio honetan Iñaki Zabaletak Oiartzun herriari dion atxikimendua erakusten du. Atxikimendu hori honako lan hauetan azaltzen da: batetik, herriari eskainitako "Oiartzungo mendietan II" abestian; bestetik, Basarri bertsolariak Oiartzuni eskainitako "Oiartzun zarrari kantuz" bertsoen moldaketan; azkenik Xabier Lete oiartzuar olerkariaren "Neguan izan zen" poema musikatuan.

Disko honetan aurretik argitaratutako zenbait lanen bertsio berriak ere agertzen dira. Hala, J. B. Elissamburu

saratar olerkariaren "Apexa ta lorea" eta "Aingeru bati olerkiak" oraingoan beste doinu berri batzuek hornituta plazaratzen dira. Era berean, "Erronkari" lana ere doinuz aldaturik ematen da. Zabaletak batetik Erronkariren aipamena egiten du, eta bestetik, Erronkarin jaiotako seme ospetsu Gayarrerren omenez, abestia Gaetano Donizetti-ren La Favorita operaren "Spirito gentil" ariaren hasierako konpasez hasten du. Esan behar da, bestalde opera hori izan zela Gayarrek bere karreran gehien interpretatu zuena.

Aipamen berezia merezi du "Errefuxiatuaren haurrari" hitz gabeko seaska kanta, melodia eder bezain zirraragarriaz apaindua, eta giza bidegabekeria gogorarazten diguna.

Disko honen sorketan Iñaki Zabaletaren bidaideak izan dira Juantxo Zeberio, Angel Unzu, Pello Ramirez, Xabier Zeberio, Iosu Salbide, Amaiur Cajaraville eta Malentxo Zeberio. Oiartzungo MECCA estudioetan grabatu da.

### AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Kontsejupean izango da, Oiartzungo Udaletxeko frontoian. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Afarirako txartelak Amazkar tabernan eta Garmendia txokolategian eros daitezke.

**Afaria kontsejupean: 15 euro**

kontzertu honen  
laguntzaileak:

